Orkestra
LEHIAKORTASUNERAKO EUSKAL INSTITUTUA
DEUSTO FUNDAZIOA

CUADERNOS ORKESTRA
ISSN 2340-7638
https://doi.org/10.18543/RTWM2847

EUSKADI 2040: ONGIZATEA HELBURU DUEN LEHIAKORTASUNA

LABURPEN EXEKUTIBOA
06/2024 zk.
https://doi.org/10.18543/VPHK2930

Ane Izulain Alejos
Mari Jose Aranguren Querejeta
James Wilson

CUADERNOS ORKESTRA, 06/2023 zk. Laburpen exekutiboa.
ISSN 2340-7638

Bilduma: https://doi.org/10.18543/RTWM2847

Koadernoa gaztelaniaz: https://doi.org/10.18543/UGSG4703

Koadernoa euskaraz: https://doi.org/10.18543/VPHK2930

Laburpen exekutiboa ingelesez: https://doi.org/10.18543/UDWW8070

© Ane Izulain Alejos, Mari Jose Aranguren Querejeta, James Wilson
© Lehiakortasunerako Euskal Institutoa –Deusto Fundazioa

www.orkestra.deusto.es/eu

Eskerrak

Koaderno hau "Euskadiren etorkizunerako ongizate inklusibo eta iraunkorrerako lehiakortasuna" ikerketa-proiektuaren parte da, eta Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren finantza-laguntza du. Egileek eskerrak eman nahi dizkiete Saileko zein Lehendakaritzako pertsonei, proiektua trakzionatu eta emaitzak Orkestrarekin batera sortu dituztelako.

Halaber, eskerrak eman nahi dizkiete Euskadi 2040 Bisioa eraikitzeko prozesuan parte hartu duten erakunde, enpresa eta pertsona guztiei: Arabako Foru Aldundia, Bizkaiko Foru Aldundia, Gipuzkoako Foru Aldundia, Bilboko Udala, Donostiako Udala, Gasteizko Udala, Eusko Legebiltzarreko Ekonomiaren Garapen eta Berrikuntza Batzordea, CCOO, LAB, UGT, Confebask, Adegi, SEA, Cebek, ASLE, Konfekoop, Sareen Sarea eta Bellota Agrisolutions, Biolan, Alcorta Forging, Grupo Gamiz, Etxe-Tar, Salto Systems, Soraluce, Mondragón componentes, Lantek, Ega Master, eta Grupo Bellota Agrisolutions enpresak, hala nola Orkestraren Administrazio Kontseiluri, Aholku Batzordeari eta Enbaxadoreen Komunitateari eta baita Galesko Etorkizuneko Belaunaldien Komisionatuari, Sophie Howe, ere.

Era berean, eskerrak eman nahi dizkiete Deustuko Unibertsitateari eta EASO, Egibide eta San Jorge Lanbide Heziketako zentroei, gazteei gerturatzeko sarbidea errazteagatik, eta, jakina, prozesuan zehar, lurraldearen Bisioa eta etorkizunerako itxaropenak ikerketa-taldearekin partekatu zituzten gazte guztiei.

Azkenik, Bart Kamp, Edurne Magro, Jorge Fernández, Mikel Navarro, Patricia Canto, Susana Franco eta Usue Lorenzi, proiektuaren garapenean zehar egindako hausnarketa eta ekarpenengatik, koaderno hau elikatu baitute.

Koadernoan jasotako iritziak eta iruzkinak ikerketa-taldeak egindakoak dira, nahiz eta oinarri duten lana modu kogeneratiboan sortu den.

Laburpen exekutiboa

Prospektiba epe luzeko joera edo eszenatoki potentzialei aurrea hartzera ez ezik, etorkizun desiragarri edo hobe bat adostera eta orainalditik eraikitzeko ekintzak definitzera bideratutako zientzia izatera igaro da. "Ongizate inklusibo eta jasangarrirako lehiakortasuna Euskadiren etorkizunerako" (aurrerantzean, Euskadi 2040) ikerketa eraldatzaileko ekimen bat da, Orkestrak – Lehiakortasunerako Euskal Institutuak- eta Eusko Jaurlaritzak[1] bultzatua. Bere helburu nagusia Euskadiren lehiakortasun-erronkak zein diren eta nola aldatzen ari diren identifikatzea da, hurrengo belaunaldirako ongizate-eredu jasangarri eta inklusibo bat eraikitzeko. Hala, Euskadi 2040k bi premiari erantzuten die:

1. Etorkizunari buruzko ikuspegi proaktiboa hartzeko beharra, hurrengo belaunaldiari begira;
2. Garapena ikuspegi ekonomikotik haratago neurtzeko eta ulertzeko beharra, ongizate inklusibo eta jasangarriranzko norabidearen alde eginez.

Euskadi 2040 Bisioa eta bere sei dimentsioak

Partaidetzazko eta elkarlaneko lantze-prozesuaren ondoriozko Euskadi 2040 Bisioa, honako hau da:

Euskadi...

• ***Oparoa.*** *Liderra industria-garapen lehiakor eta iraunkorrean. Pertsona guztien enplegu osoa eta bizi-kalitatea bermatzen dituen ekonomia oparo eta dibertsifikatuarekin.*

• ***Inklusiboa.*** *Aniztasuna ahalduntzea, hartzea eta pertsona guztiak gaitzea gizarte inklusibo eta ekitatibo batean erabat garatzeko.*

• ***Berdea.*** *Karbono-neutroa.*

• ***Berritzailea.*** *Aitzindaria, eta etengabe eraldatzen ari dena.*

• ***Konprometitua****. Leku paregabea, bere berezitasunak lantzen dituena, eta gizarte sozial, kultural, politiko eta enpresarial konprometitua duena.*

• ***Konektatuta.*** *Munduarekiko erantzunkidea eta erreferentea nazioartean.*

Azken batean, ***Euskadi lehiakorra, pertsona guztien ongizatearen aldeko apustua egiten duena, belaunaldien arteko erantzunkidetasunarekin eta munduko gainerako herrialdeekiko elkartasunez. Leku bereizia, bizitzeko erakargarria eta elkarrekin eraiki beharrekoa.***

[1] Zehazki, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila, Lehendakaritza Sailarekin batera.



Euskadi 2040 Bisioak sei dimentsio ditu, eta horien azpian, lehiakortasun-erronka desberdinak identifikatzen dira. Bisioaren funtsezko ezaugarrietako bat izaera **sistemikoa** da, dimentsio bakoitzari modu isolatuan ez begiratzeko tresna gisa erabili daitekeelarik, dimentsio bateko eraginak gainerako dimentsioetan izan ditzakeen eragin positiboak edo gatazkatsuak ulertzeko tresna gisa, sinergiak lehenesteko.

Dimentsio bakoitzeko jomugak

Dimentsio bakoitzerako jomuga batzuk ezarri dira, dagozkien erreferentziazko adierazle banarekin, bisioaren dimentsioak zehazten dituztenak eta jarraipena egitea ahalbidetzen dutenak. Gainera, 39 adierazleko panel zabalago bat ere ezarri da (I. eranskina), Euskadi 2040 Bisioak eta Erronkek jasotzen duten eremu-aniztasuna islatzen dutenak.

DIMENTSIOA	JOMUGA	ERREFERENTZIAZKO ADIERAZLEA
OPAROA	**% 6tik beherako langabezia duen lurraldea**	Langabezia-tasa (biztanleria aktiboaren %)
	Biztanle bakoitzeko errenta handiena duten Europako eskualdeen % 10en artean	Per cápita BPG (EAP)
INKLUSIBOA	**Pobrezia-tasa txikiena duten Europako eskualdeen % 10en artean**	Arope pobreziako eta bazterkeriako arrisku-tasa
BERRITZAILEA	**Berrikuntzako eskualde europar liderra**	Regional Innovation Scoreboard (RIS)

BERDEA	**Karbonoan neutroa den lurralde**	Berotegi-efektuko gasen isurketen indizea (2005 oinarri-urtea)
KONPROMETITUA	**Hori guztia lortzeko, gero eta konpromiso handiagoa hartu behar du gizarteak Euskadiren etorkizunarekin, haren berezitasuna errespetatuz eta babestuz, eta munduarekiko gero eta irekiagoa eta interkonektatuagoa egonik.**	
KONEKTATUA		

Euskadi 2040 Bisioa ikuspegi aspirazionala da, baina errealista, dauden lehiakortasun-oinarrien gainean eraikia, eta lurralde-hausnarketa estrategikoaren plano batean ez ezik, ekintzara eramateko bokazioa duena. Horretarako, zenbait **apustu traktore** identifikatu dira, ekimen berritzaile, estruktural, eskalagarri eta hainbat eragileren (erakundeak, eragile publikoak, pribatuak, etab.) arteko lankidetzan garatutakoak, Euskadi 2040 Bisioa errealitate bihurtzea ahalbidetuko duten eraldaketak sortzeko.

Bisioaren garapen prozesua

Bisioa ikerketa-ekintza prozesu baten bitartez garatu da. Prozesu horretan, Euskadik lehiakortasunean eta ongizatean gaur egun duen posizionamenduaren diagnostikoaren inguruko hainbat azterketa, lurraldea gaur egungo errealitatera ekarri duten gakoak eta nazioarteko megajoera nagusiak hartu dira oinarri. Hasierako proposamena Eusko Jaurlaritzaren eta Orkestraren ordezkariek osatutako talde eragile batean garatu zen, eta lurraldeko hainbat eragilerekin kontrastatu da:

- Maila anitzeko kontrastea, hiru foru-aldundien (Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa) eta udalen bidez lurralde historikoaren maila barne hartu duena, hiriburuko hiru udalen (Bilbo, Donostia eta Gasteiz) eta EUDELen bitartez.
- Sailen arteko kontrastea, Eusko Jaurlaritzaren barruan koherentzia eta lerrokatzea bermatzeko.
- Eragile anitzeko kontraste bat, tokiko eta nazioarteko eragileak barne hartu dituena, hainbat kolektiboren perspektibak txertatzeko, hala nola langileen, enpresaburuen eta enpresen ordezkariak, hirugarren sektorea eta gazteen kolektiboa, haien rola ezinbestekoa baita etorkizuneko eredu lehiakorra eraikitzeko.

Lurralde-eragileei galdetzerakoan, bi hurbilketa erabili ziren: alde batetik, zuzeneko harremana kolektiboarekin, eta, bestetik, haien interesak ordezkatzen dituzten elkarteen/erakundeen bitartez.

Ikaskuntza nagusiak

Euskadirako 2040rako Bisioaren eraikuntzaren mugarriaz gain, prozesuak aukera eman du ikerketa-ikuspegitik zenbait ikaskuntza ateratzeko. Ikaskuntza horiek garrantzitsuak izan daitezke, bai etorkizunean estrategia definitzeko antzeko prozesua egin nahi duten lurraldeentzat, bai Euskadiko beste eremu batzuetan ikuspegi partekatu berriak sortzeko, bai Euskadi 2040 prozesuaren hurrengo faseetan aurrera egiteko:

Bisioaren inguruko ikaskuntzak	Prozesuaren inguruko ikaskuntzak
• Bisio partekatua eraikitzeko prozesuetan funtsezkoa da irismena eta landuko den ikuspegia mugatzea. Euskadi 2040ren kasuan, "ongizatea helburu duen lehiakortasunaren" ikuspegia izatea adostu zen. • Lehiakortasunaren planteamendu sistemikoak ongizatearen hainbat dimentsio aldi berean garatzea ahalbidetzen du. Prozesuak dimentsioen artean sor daitezkeen gatazkak sortzen lagundu du, bai eta aldi berean aurrera egiteko bide alternatiboak bilatzen ere (adibidez, lurralde oparoa eta berdea berrikuntzaren bidez garatzea). • Planteamendu sistemikoa lantzeko prozesua konplexua da; izan ere, dimentsio bakoitzean aurrera egitearen edo ez aurrera egitearen atzean interes legitimo propioak dituzten eragileak daude. Horrek, batzuetan, aurrera egiten uzten ez duten posizio polarizatuak sortzen ditu. Ikuspegi desberdinak dituzten eragileekiko elkarrizketa eta dimentsio desberdinak aldi berean lantzeko moduari buruzko narratiba eta hizkuntza partekatua eraikitzea ezinbesteko tresnak dira aurrera egitea ahalbidetuko duten gutxieneko izendatzaile komunak bilatzeko.	• Prozesuaren irismenak eta ikuspuntuak prozesua sustatzen duen lidergoa baldintzatzen dute, prozesua bizirik mantentzea eta aurrerapenen jarraipena erraztuz. Hala ere, epe ertain-luzean, garrantzitsua da rol desberdinak dituzten beste lidergo batzuk aktibatzea, prozesuaren unearen eta helburuen arabera. • Prozesuak aurrera egin ahala eta erronka berriek aurrera egin ahala, beharrezkoa da pentsatzea zer eragile berri inplikatu behar diren prozesuan eta nola. Euskadi 2040n, etorkizuneko eraikuntza-proiektu bat izanik, funtsezkotzat jo da gazteak sartzea, horrelako prozesuetan parte hartu ohi ez dutenak. Horretarako, parte hartzeko moduak ere berritu behar izan dira. • Eragile desberdinen parte-hartze prozesuaren ondorioz, eragile bakoitzaren gaitasun indibidualez gain, gaitasun kolektiboak sortzen dira lurraldean, hala nola elkarrengandik ikasteko eta berritzeko gaitasuna eta sareak eta harremanak eraikitzeko gaitasuna, oso garrantzitsuak baitira epe luzerako lurralde-estrategia bat bultzatzeko.

Prozesu horretan, hurrengo urrats gisa, garrantzitsua izango da gobernantza-eredu bat sortzea eta finkatzea, Euskadiren etorkizun biziari buruzko elkarrizketari eutsi ahal izateko. Bisio partekatua agenda partekatu bat eraikitzeko tresna ere bada; izan ere, lurraldeko eragile bakoitza islatuta egon daitekeen ispilu gisa ulertzen da, eta bere jarduerak definitzeko erabiltzen da, bakoitzak, bere roletik, bisioari egiten dion ekarpen-maila ebaluatu dezakeelako. Horrela, Bisioak lurraldeko eragileen agendak etorkizuneko horizonte komun bererantz antolatzen eta lerrokatzen lagunduko luke.

Orkestra

LEHIAKORTASUNERAKO
EUSKAL INSTITUTUA
DEUSTO FUNDAZIOA

www.orkestra.deusto.es